

**ANTOLAKUNTZA ETA KONTUETAKO BATZORDEA /**  
**COMISIÓN DE ORGANIZACIÓN Y CUENTAS**

<b><u>GETXOKO UDALEKO</u></b> <b><u>ANTOLAKUNTZA ETA</u></b> <b><u>KONTUETAKO INFORMAZIO</u></b> <b><u>BATZORDEAK 2020KO IRAILAREN</u></b> <b><u>22AN EGINDAKO BILKURAREN</u></b> <b><u>AKTA</u></b>	<b><u>ACTA DE LA SESIÓN CELEBRADA</u></b> <b><u>POR LA COMISIÓN</u></b> <b><u>INFORMATIVA DE</u></b> <b><u>ORGANIZACIÓN Y CUENTAS DEL</u></b> <b><u>ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE</u></b> <b><u>GETXO, EL DÍA 22 DE</u></b> <b><u>SEPTIEMBRE DE 2020</u></b>
<b><u>BERTARATUAK</u></b>  Batzordeburua	<b><u>ASISTENTES</u></b>  El Presidente

IGNACIO URIARTE GOROSTIAGA jn. (EAJ-PNV)

**BATZORDEKIDEAK // VOCALES**

- KELTSE EIGUREN ALBERDI and. (EAJ/PNV)
- JANIRE OCIO CELADA and. (EAJ/PNV)
- ALVARO GONZÁLEZ PÉREZ jn. (EAJ/PNV)
- CARLOS SERGIO ATXOTEGI jn. (EAJ/PNV)
- GONZALO ZORRILLA LEQUERICA PAÑEDA jn. (PP)
- ALICIA GONZÁLEZ DEL VALLE FRANCOS and. (PP)
- ITXASO MASEDA SARATXO and. (EH BILDU)
- IBON RODRÍGUEZ LARRINAGA jn. (EH BILDU)
- CARMEN DÍAZ PÉREZ and. (PSE-EE (PSOE))
- PAULA AMIEVA CLEMENTE and. (ELKARREKIN  
PODEMOS)

**BATZORDEKO IDAZKARIA // SECRETARIA COMISIÓN**

CRISTINA ORBEZUA GONZÁLEZ and.

**KONTUHARTZAILEA // INTERVENTORA**

NURIA HERNÁNDEZ SOTO and

Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2020ko irailaren 22an, 12:50ean, Antolakuntza eta Kontueta Informazio Batzordea bildu da.

Honako honen berri ematen da: Itxaso Maseda Saratxo andrea bilerara bertaratu da Cristina Zamora Chuquiguanga andrearen ordez.

Betaratu dira aipatutako zinegotziak, Larraitz Aberasturi Ibarra, Araubide Juridikoko letradua, Nuria Hernández Soto, kontu-hartzaile nagusia, eta ni, batzordeko idazkaria, eta honako gai hauek jorratu dira:

Batzordeburuak adierazi du 9. puntu gisa, Informazio Orokorraren aurretik, proposamen bat gai-zerrendan sartzea bozkatuko dela, hain zuzen ere, CRISTINA ZAMORA CHUQUIGUANGA (EH BILDU) ANDREAK ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGIN DIOLA JAKITEKO PROPOSAMENA.

### **1. 2020-06-18KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

Aurreko bilkuraren akta ontzat ematen da, 2020ko ekainaren 18koa.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, el día 22 de septiembre de 2020, a las 12:50 horas, se reúne la Comisión Informativa de Organización y Cuentas.

Se hace constar que doña Itxaso Maseda Saratxo asiste a la sesión en sustitución de doña Cristina Zamora Chuquiguanga.

Con la asistencia de las/os Sras/Sres. Concejales/es mencionadas/os, de Larraitz Aberasturi Ibarra, Letrada de la Unidad de Régimen Jurídico, de Nuria Hernández Soto, la Interventora General, y de mí, la Secretaria de la Comisión, se trataron los siguientes asuntos:

El Presidente de la Comisión señala que como punto nº 9, antes de la Información General, se va a votar la inclusión en el Orden del Día de la PROPUESTA DE TOMA DE CONOCIMIENTO DE LA RENUNCIA AL CARGO DE LA CONCEJALA DE DOÑA DOÑA CRISTINA ZAMORA CHUQUIGUANGA (EH BILDU).

### **1. APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 18.06.2020.**

Se aprueba el acta de la sesión anterior de 18 de junio de 2020.

## 2. 2020-07-23KO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.

Aurreko bilkuraren akta ontzat ematen da, 2020ko uztailaren 23koa.

## 2. APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 23.07.2020.

Se aprueba el acta de la sesión anterior de 23 de julio de 2020.

## 3. 2019.URTEKO KONTU OROKORAREN ONESTEKO PROPOSAMEENA.

Proposamenaren berri eman eta bozketara eramán ondoren, emaitza honako hau izan da: : **aldeko 6 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE); eta 5 abstentzio (PP, EH BILDU eta ELKARREKIN PODEMOS).**

Ondorioz, eta Antolakuntza eta Kontuetao Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkurari egin zaio hurrengo:

### ERABAKI PROPOSAMENA

Getxoko Udalaren kontu orokorra onestea, 2019. urteko ekitaldiari dagokiona eta honako entitateen kontuek osatzen dutena: Udalarenak berarenak, lau erakunde autonomoenek eta Kirol Portuko El Abra S.A Elkartearenak.

## 3. PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL 2019.

Dada cuenta de la propuesta, y sometida a votación, arroja el siguiente resultado: **6 votos a favor, EAJ-PNV y PSE-EE y 5 abstenciones de PP, EH BILDU y ELKARREKIN PODEMOS.**

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, se eleva al Pleno la siguiente:

### PROPUESTA DE ACUERDO

Aprobar la Cuenta General del Ayuntamiento de Getxo, integrada por la de la propia entidad, las de los cuatro Organismos Autónomos y la de la Sociedad Puerto Deportivo El Abra-Getxo S.A. correspondiente al ejercicio 2019.

Kontu orokorra eta haren edukiak Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea, Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru-Arauak 63. artikuluko 5. paragrafoan dioenarekin bat etorriz.

Rendir la Cuenta General, junto a todo su contenido, al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas en los términos que establece el apartado 5 del artículo 63 de la Norma Foral 10/2003, de 2 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Bizkaia.

**4. UDAL HERRI JABARIA ATZEMATEAGATIKO TASAREN ZERGA-ORDENANTZAREN ALDARAZPENA BEHIN-BEHINEAN ONESTEKO PROPOSAMENA.**

**4. PROPUESTA DE APROBACIÓN PROVISIONAL DE MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA POR OCUPACIÓN DEL DOMINIO PÚBLICO MUNICIPAL.**

Uriarte jaunak proposamenaren edukia azaldu du.

El Sr. Uriarte explica el contenido de la propuesta.

Ibon Rodríguez jaunak prozedurari lotutako kexa bat azaldu du, puntu honi eta hurrengoari buruz zinegotziei helarazi zaizkien txostenak gaztelaniaz baino ez daudelako. Askotan mahai gainean jarri den aldarrikapena da, eta hurrengo batzorderako konpontzea espero da. Era berean, gogorarazi du Euskararen Nazioarteko Egunean adierazpen bat sinatu zela, euskara lan-hizkuntza ofiziala izateko asmoa adierazten zuena, eta horrek, gutxienez, zinegotziei bidaltzen zaizkien txostenak elebidunak izatea eskatzen duela.

Don Ibon Rodríguez expresa una queja en relación con el procedimiento consistente en que los informes referidos a este punto y al siguiente, que se han trasladado a los corporativos/as, sólo están en castellano. Se trata de una reivindicación que se ha puesto muchas veces sobre la mesa y que espera que se resuelva para la siguiente comisión. Asimismo recuerda que en el Día Internacional del Euskera se firmó una declaración en la que se reflejaba la intención de que el euskera fuera la lengua oficial de trabajo lo que implica, al menos, que los informes que se envían a los concejales/as sean bilingües.

Batzordeburuak erantzun dio iradokizuna eta kexa jaso direla.

El Presidente de la Comisión responde que se recoge la sugerencia y la queja.

Ondoren, Amieva andreak galdetu du bide publikoko terrazan tasen beherapenaren gaia merkatarien elkarteekin landu den udal-foroetan eta horretarako sortutako mahaietan, haien iritzia zein den jakiteko eta kontuan hartzeko moduko beste irtenbide batzuk proposatzen dituzten jakiteko.

Uriarte jaunak erantzun du proposamen hori terrazan tasari baino ez dagokiola, eta, beraz, ostalaritzari baino ez diola eragiten; berretsi du sektore horrekin aztertu dela gaia, Sustapen Ekonomikoak egindako bileretan, eta horrela jakinarazi zaiela zinegotziei.

Amieva andreak berriro galdetu du bilera politiko-teknikoen ondoren beste kontakturik egon den ala ez. Uriarte jaunak adierazi du Ekonomia Sustapeneko zinegotziak etengabeko harremana duela, baina dagokion foroan eman behar dela horren berri, hau da, Herritarren Batzordean.

Proposamenaren berri eman eta bozketara eraman ondoren, emaitza honako hau izan da: **aldeko 6 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE); eta 5 abstentzio (PP, EH BILDU eta ELKARREKIN PODEMOS).**

Ondorioz, eta Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkurari egin zaio hurrengo:

#### **ERABAKI PROPOSAMENA**

La Sra. Amieva continúa preguntando si el asunto de la rebaja de las tasas por terrazas en vía pública se ha tratado con las asociaciones de comerciantes en los foros municipales y en las mesas creadas al efecto, con la finalidad de conocer su opinión y si proponen otras soluciones que se puedan considerar.

El Sr. Uriarte responde que esta propuesta se refiere exclusivamente a la tasa de terrazas, por lo que afecta únicamente a la hostelería, confirmando que se ha tratado en las reuniones realizadas con este sector por Promoción Económica, tal y como se ha dado cuenta a los corporativos.

La Sra. Amieva insiste en saber si después de las reuniones político-técnicas ha habido algún contacto más, señalando el Sr. Uriarte que el Concejal de Promoción Económica mantiene contacto permanente, pero que donde se debe dar cuenta es el foro correspondiente, que es la Comisión de Ciudadanía.

Dada cuenta de la propuesta, y sometida a votación, arroja el siguiente resultado: **6 votos a favor, EAJ-PNV y PSE-EE y 5 abstenciones de PP, EH BILDU y ELKARREKIN PODEMOS.**

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, se eleva al Pleno la siguiente:

#### **PROPUESTA DE ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** Behin-behinean onetsiko da udal jabari publikoa atzemateari dagokion tasa arautzen duen zerga-ordenantzaren aldarazpena, eranskin gisa bidali den dokumentuan (aldarazpen-proiektua) jasotako terminoetan. Dicha modificación supone establecer una Disposición Transitoria con el siguiente tenor literal:

*“2021eko ekitaldian, E) "bide publikoko terrazak" epigrafearen oinarritzko tarifa 13 eurokoa izango da m2-ko edo zatiki bakoitzeko. “*

**BIGARRENA.-** Aldarazi den testuak, behin betiko onetsi ondorik, 2021eko urtarrilaren letik aurrera izango ditu ondorioak.

**HIRUGARRENA.-** Zerga ordenantzaren aldaketaren behin-behineko onespena udaletxe honetako iragarki oholean 30 egunez jartzeko aginduko da. Hala, interesdunek espedientea aztertu eta komenigarritzat jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte.

Jendaurreko erakustaldia BAOn iragarriko da, baita lurralde historiko honetan zabalkunderik handiena duten egunkarietako batean ere.

**LAUGARRENA.-** Erreklamaziorik aurkeztu ez bada, behin betikotzat jotzea ordenantza aldatzeko behin-behineko erabakia.

**PRIMERO.-** Aprobar con carácter provisional la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por ocupación del dominio público municipal, en los términos del documento que se adjunta como anexo (Proyecto de modificación). Dicha modificación supone establecer una Disposición Transitoria con el siguiente tenor literal:

*“Durante el ejercicio 2021 la tarifa base del Epígrafe E) “Terrazas en vía pública” será de 13 euros por m2 o fracción. “*

**SEGUNDO.-** El texto modificado, una vez definitivamente aprobado, surtirá efectos el día 1 de enero de 2021.

**TERCERO.-** Ordenar la publicación de la aprobación provisional de la modificación de la Ordenanza Fiscal afectada en el tablón de anuncios de este Ayuntamiento durante el plazo de 30 días hábiles, a fin de que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

Anunciar dicha exposición al público en el B.O.B y en uno de los diarios de mayor difusión de este Territorio Histórico.

**CUARTO.-** Elevar a definitivo el acuerdo provisional de modificación de la Ordenanza si no se han presentado reclamaciones.

**5. “RKE KAFETEGIA” IZENEKO UDAL-ERAIKINA USTIATZEKO ZERBITZUAREN EMAKIDAREN KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROPOSAMENA.**

Proposamenaren berri eman eta bozketara eramán ondoren, emaitza honako hau izan da: **aldeko 6 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE); eta 5 abstentzio (PP, EH BILDU eta ELKARREKIN PODEMOS).**

Ondorioz, eta Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkurari egin zaio hurrengo:

**ERABAKI PROPOSAMENA**

LEHENENGOA: NÁUTICO BERRIA SLU (IFK: B-95919189) sozietate-izenari ADJUDIKATZEA “RKE KAFETEGIA” IZENEKO UDAL-ERAIKINA USTIATZEKO ZERBITZUAREN EMAKIDAREN kontratua. Enpresa adjudikaziodunak 1.103,25 euroko hileko kanona ordaindu behar du (BEZik gabe), eta konpromisoa hartuko du “RKE KAFETEGIA” lokalaren ustiapen-markaren irudi bat erabiltzeko.

Kontratu honen iraupena 4 (LAU) URTEKOA izango da administrazio-kontratu sinatzen den unetik aurrera zenbatuta. Adjudikaziodunak eskatzen badu eta udalak egokitzat jotzen badu, kontratua behin luzatu ahal izango da 4 (LAU) urtez. Adjudikaziodunak kontratua amaitu baino gutxienez 6 (sei) hilabete

**5. PROPUESTA DE ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE CONCESIÓN DE SERVICIO DE EXPLOTACIÓN DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO “RKE KAFETEGIA”.**

Dada cuenta de la propuesta, y sometida a votación, arroja el siguiente resultado: **6 votos a favor, EAJ-PNV y PSE-EE y 5 abstenciones de PP, EH BILDU y ELKARREKIN PODEMOS.**

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, se eleva al Pleno la siguiente:

**PROPUESTA DE ACUERDO**

PRIMERO: ADJUDICAR a la razón social “NÁUTICO BERRIA S.L.U.”, con CIF B-95919189, el contrato de CONCESIÓN DE SERVICIO DE EXPLOTACIÓN DEL EDIFICIO MUNICIPAL DENOMINADO “RKE KAFETEGIA”. El canon mensual a abonar por la empresa adjudicataria será de 1.103,25 euros (no sujeto a I.V.A.), comprometiéndose a la adopción de una imagen de marca de explotación del local “RKE KAFETEGIA”.

La duración del presente contrato será de 4 (CUATRO) AÑOS desde la fecha de formalización del contrato administrativo. En caso de que el adjudicatario lo solicite y siempre que el Ayuntamiento lo considere oportuno podrá prorrogarse el contrato por una única prórroga de 4 (CUATRO) años. El adjudicatario deberá

lehenago eskatu beharko du luzapena, eta udalak kontratua amaitu baino 2 (bi) hilabete lehenago onartu beharko du.

**BIGARRENA:** Adjudikaziodunak, SPKLren 153.3. artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, ezin izango ditu kontratuak formalizatu lizitatzaileri adjudikaziodunaren jakinarazpena bidaltzen zaienetik hamabost egun baliodun igaro arte.

Kontratazio-organoak adjudikaziodunari aginduko dio kontratuak Kontratazio Zerbitzuaren bulegoetan formalizatzeke (Foru kalea, 8), gehienez ere, bost eguneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, aurreko paragrafoan adierazitako epea amaitu ondoren ez bada egin kontratua formalizatzea etetea dakarren errekurtsorik.

**HIRUGARRENA:** Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan Sartzeari buruzko Eusko Legebiltzarraren 3/2016 Legearen 5.4. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboa **BIZKAIKO OSTALARITZAREN HITZARMEN KOLEKTIBOA** da.

solicitar la prórroga del contrato con una antelación mínima de 6 (seis) meses antes de la finalización del contrato y el Ayuntamiento acordar la misma 2 (dos) meses antes de terminar el contrato.

**SEGUNDO:** El adjudicatario, de conformidad con lo indicado en el artículo 153.3 de la LCSP, no podrá formalizar el contrato antes de que transcurran quince días hábiles desde que se remita la notificación de la adjudicación a los licitadores.

El órgano de contratación requerirá al adjudicatario para que formalice los contratos en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle Fueros nº 8, en un plazo no superior a cinco días a contar desde el siguiente a aquel en que hubiera recibido el requerimiento, una vez transcurrido el plazo previsto en el párrafo anterior sin que se hubiera interpuesto recurso que lleve aparejada la suspensión de la formalización de los contratos.

**TERCERO:** De conformidad con lo dispuesto en el artículo 5.4 de la Ley del Parlamento Vasco 3/2016, para la inclusión de determinadas cláusulas sociales en la contratación, se indica que el convenio colectivo que la empresa adjudicataria declara aplicable a los trabajadores que realicen la actividad objeto del contrato es el **CONVENIO COLECTIVO DE LA HOSTELERÍA DE BIZKAIA**.



**6. BIDEAK GARBITZEKO, HIRIKO HONDAKIN SOLIDOAK JASOTZEKO ETA GARRAIATZEKO, UDALEKO INGURUMEN-GUNEA BERRITZEKO ETA USTIATZEKO ETA ANTZEKO BESTE ZERBITZU BATZUK GAUZATZEKO ZERBITZU OROKORREN KONTRATUAREN LAGATZE PARTZIALA BAIMENTZEKO PROPOSAMENA.**

Proposamenaren berri eman eta bozketara eramán ondoren, emaitza honako hau izan da: **aldeko 6 boto (EAJ-PNV eta PSE-EE); eta 5 abstentzio (PP, EH BILDU eta ELKARREKIN PODEMOS).**

Ondorioz, eta Antolakuntza eta Kontuetao Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkurari egin zaio hurrengo:

**ERABAKI PROPOSAMENA**

Lehenengoa: bideak garbitzeko, hiriko hondakin solidoak jasotzeko eta garraiatzeko, udaleko ingurumen-gunea berritzeko eta ustiatzeko eta antzeko beste zerbitzu batzuk gauzatzeko zerbitzu orokorren kontratuaren lagatze partziala baimentzea. Lagatzea hontan datza: “Ansareo Servicios Integrales, S.L” enpresak (IFK B95975959), ABEE adjudikaziodunéan duen %25eko partehartzea “Cespa, Gestión de Residuos, S.A.” enpresari (IFK A59202861) lagatzen dio.

**6 PROPUESTA DE AUTORIZACIÓN DE LA CESIÓN PARCIAL DEL CONTRATO DE LOS SERVICIOS GENERALES DE LIMPIEZA VIARIA, RECOGIDA Y TRANSPORTE DE RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS, RENOVACIÓN Y EXPLOTACIÓN DEL COMPLEJO MEDIOAMBIENTAL MUNICIPAL Y OTROS SERVICIOS AFINES.**

Dada cuenta de la propuesta, y sometida a votación, arroja el siguiente resultado: **6 votos a favor, EAJ-PNV y PSE-EE y 5 abstenciones de PP, EH BILDU y ELKARREKIN PODEMOS.**

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, se eleva al Pleno la siguiente:

**PROPUESTA DE ACUERDO**

Primero: Autorizar la cesión parcial del contrato de los servicios generales de limpieza viaria, recogida y transporte de residuos sólidos urbanos, renovación y explotación del complejo medioambiental municipal y otros servicios afines. Dicha cesión consiste en que la empresa “Ansareo Servicios Integrales, S.L” (con C.I.F. B95975959) cede su participación del 25% en la UTE adjudicataria, a la empresa “Cespa, Gestión de Residuos, S.A.” (con C.I.F. A59202861).

Lagapen horren ondorioz, oraindik aurrera ABEE adjudikazioduna (“UTE GETXO SERVICIOS URBANOS”, IFK. U-95769873) empresa hauetaz egongo da osatuta:

- “Cespa, Compañía española de residuos públicos auxiliares, S.A.” (IFK A82741067)
- “Cespa, gestión de residuos, S.A.” (IFK A59202861).

Bigarrena: Baimendutako lagapen hau eskritura publikoan formalizatzeko 15 egun naturaleko epea emango da.

Aipatutako lagapenaren eskritura Foruen kaleko 8. zenbakian dauden Kontratazio Zerbitzuaren bulegoetan aurkeztu beharko da, 7 egun naturaleko epean, gehienez ere, hori egiten denetik zenbatzen hasita.

Hirugarrena: Lagatzaileak bere egunean jarritako behin-betiko bermea bueltatzea, 917.954,92 €.

Horretarako, eta kontuan izanik jendearentzako arretarako eguneko osasun-krisitik eratorritako ingurabar bereziak, honako dokumentazioa aurkeztu beharko du Udalaren Erregistro Orokorrean, Diruzaintza arloari zuzendutakoa:

Lege-ordezkarria joaten bada zuzenean:

- Ordainketa gutun originala
- Lege-ordezkarriaren NANaren kopia
- Ordezkaritza-ahalordearen kopia

Como consecuencia de la cesión antedicha, la U.T.E. adjudicataria del contrato (“UTE GETXO SERVICIOS URBANOS”, con C.I.F. U-95769873) estará formada a partir de ahora por las siguientes empresas:

- “Cespa, Compañía española de residuos públicos auxiliares, S.A.”, con C.I.F. A82741067
- “Cespa, gestión de residuos, S.A.”, con C.I.F. A59202861.

Segundo: Conceder un plazo de 15 días naturales para la formalización en escritura pública de la cesión que se autoriza.

La citada escritura de cesión habrá de ser presentada en las oficinas del Servicio de Contratación, sitas en la calle fueros nº8, en el plazo máximo de 7 días naturales a contar desde su formalización.

Tercero: Devolver la parte de la garantía definitiva en su día depositada por la cedente, y que asciende a la suma de 917.954,92 €.

A tal efecto, y habida cuenta de las circunstancias especiales de atención al público derivadas de la actual crisis sanitaria, deberá presentar por Registro General del Ayuntamiento la siguiente documentación dirigida al área de Tesorería:

Si acude directamente el representante legal:

- Carta de Pago Original
- Copia del DNI del representante legal.
- Copia del poder de representación.

Lege-ordezkaria ez den pertsona joaten bada:

- Ordainketa gutun originala
- Lege-ordezkariaren NANaren kopia
- Ordezkaritza-ahalordearen kopia
- Lege-ordezkariaren baimena bermea berreskuratzeko
- Baimentzen den pertsonaren NANaren kopia.

Eskabidea eta ekarritako dokumentazioa aztertu ondoren, Diruzaintza arloak interesatuari bidaliko dio bere egunean aurkeztutako abal originala.

Bestalde esan behar da bermea ez da itzuliko kontratuaren lagapen-hartzaileak, (“Cespa, gestión de residuos, S.A.”) udal diruzaintzan behin betiko bermea eratu arte, zenbateko berean. Gehienez zazpi egun naturaletan jarri beharko du bermea, ebazpen honen jakinarazpenetik aurrera zenbatuta. (Bermea eratzeko moduari buruz, lehen aipatu diren ingurabar bereziak kontuan izanik, Diruzaintzako departamenduarekin jarriko da harremanetan, eta hark emango dizkio nola egiteko argibideak).

Laugarrena: Ebazpen hau bai ABEE adjudikaziodunari bai lagapen-hartzaileari Jakinaraztea.

Baita jakinaraziko zaie Kontuhartzailletza eta Diruzaintza departamenduei ere, jakin dezaten eta dagozkion lege-ondorioetarako.

Si acude persona distinta del representante legal:

- Carta de Pago Original
- Copia del DNI del representante legal.
- Copia del poder de representación.
- Autorización del representante legal para proceder a retirar la garantía.
- Copia del DNI de la persona autorizada.

Una vez revisada la solicitud y la documentación aportada, el Área de Tesorería procederá a remitir a la interesada el aval original presentado en su día.

Por otra parte indicar que la devolución no se hará efectiva en tanto la cesionaria (“Cespa, gestión de residuos, S.A.”), no deposite en la Tesorería municipal garantía definitiva por el mismo importe. Tal depósito deberá hacerse en el plazo máximo de siete días naturales a contar desde la notificación de la presente resolución. (En cuanto a la forma de realizar el depósito, y habida cuenta de las circunstancias especiales que antes se han citado, deberá ponerse en contacto con el Departamento de Tesorería, el cual dará las indicaciones de cómo proceder).

Cuarto: Notificar la presente resolución tanto a la U.T.E adjudicataria como a la cesionaria del contrato.

Notificar así mismo la presente resolución al Departamento de Intervención y a la Tesorería municipal, para que tomen nota de la autorización de la cesión, a los efectos legales que procedan.

**7. GETXOKO UDALEKO ETA ERAKUNDE AUTONOMOETAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA, 2020-2023 ALDIA, ONESTEKO PROPOSAMENA.**

Eiguren andreak 2020-2023 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren edukia azaldu du.

Jarraian, Alderdi Popularrak aurkeztutako zuzenketen berri eman da. Sarrera-erregistroko 23629/2020 zenbakiko idazkiaren bidez aurkeztu ditu, eta honako hau da zuzenketa horien edukia:

- 1) 15. ildo estrategikoa. 14. ildo sartu: Kirol egokiturako dirulaguntza.
- 2) 3. ildo estrategikoa, Gizarte Ekintzari lotutakoa. Dirulaguntza izendun gisa sartu, 3.11 ildo: Elikagaien bankua.
- 3) 11. ildo estrategikoa, Etxebizitzari lotutakoa. Ezabatu 11.2 ildotik "bizitegiaren" erreferentzia.
- 4) 10. ildo estrategikoa, ondare historikoa babesteari eta kontserbatzeari lotutakoa Gehitu 10.2: Babestutako eraikinak birgaitzeko laguntzak.

Zorrilla Lequerica jaunak egindako zuzenketen defentsarekin hasi da eztabaida; izan ere, kirol egokitua egiten duten pertsoneri edo taldeei dirulaguntzak emateko beharra nabarmendu du, Elikagaien Bankuaren lan garrantzitsua azpimarratu uzten du eta ondare historikoa babesteko eta

**7. PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL PLAN ESTRATEGICO DE SUBVENCIONES 2020-2023 DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO Y SUS ORGANISMOS AUTONOMOS.**

La Sra. Eiguren explica el contenido del Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023.

A continuación se da cuenta de las enmiendas presentadas por el Partido Popular, mediante escrito con nº 23629/2020 de Registro de Entrada, cuyo contenido es el siguiente:

- 1ª) Línea estratégica nº 15. Incorporar la línea 14: Subvención para deporte adaptado.
- 2ª) Línea estratégica nº 3 de Acción Social. Incorporar como subvención nominativa, la línea 3.11: Banco de alimentos.
- 3ª) Línea estratégica nº 11 de Vivienda. Eliminar de la línea 11.2 la referencia a "residenciales".
- 4ª) Línea estratégica nº 10 de Protección y Conservación de Patrimonio Histórico. Añadir 10.2: Ayudas rehabilitación edificios protegidos.

El debate comienza con la defensa de las enmiendas realizada por el Sr. Zorrilla Lequerica que destaca la necesidad de subvencionar a personas o equipos que realizan deporte adaptado, pone de manifiesto la importante labor del Banco de Alimentos y cita el objetivo de poder incorporar a más instituciones o

kontserbatzeko laguntzen onuradun izan daitezkeen erakunde edo eraikin gehiago sartzeko helburua aipatu du.

Rodríguez jaunak hitz egin du ondoren; azpimarratu du dirulaguntzen planak ez dituela betebeharrak jasotzen, mugak baizik, baina keinu politiko oso nabarmena duela. Ildo horretan, badirudi Getxotik 250 kilometro baino gehiagora dauden preso senideentzako laguntzak kentzea keinu politiko bat dela, hemen akordioren bat dagoela adierazten duena, eta hori nahikoa arrazoi da proposamena zentzu negatiboan bozkatzeko. Rodríguez jaunak gaineratu du, hala ere, osoko bilkurari egokitzat jotzen dituzten zuzenketak aurkezteko eskubidea gordetzen dutela. Aurkeztutako zuzenketei dagokienez, adierazi du lehenengo zuzenketa egingarria iruditzen zaiela baina bigarrenarekin ez daudela ados, dirulaguntza izenduna izan beharrean lehia bidezkoa izan daitekeela. Hirugarrenarekin erabateko desadostasuna agertu du eta laugarrenarekin ados egon daitezke. Hala ere, aurreko argudioa kontuan hartuta, hau da, antzezpena dela, adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela.

Amieva andreak adierazi du osoko bilkurarako zuzenketak aurkeztuko dituztela eta pena dela PPren zuzenketak lehenago jaso ez izana. Gaineratu du ez dakiela PPrekin atzetik akordiorik egingo den, eta zalantzak ditu Planaren urteko kontrol ekonomiko-finantzariotik eta jarraipenetatik ondorioztatzen den ustezko gardentasunari buruz; izan ere, urtero eskatu den zerbait da, nahiz eta emaitzarik ez izan. Hurbilena otsailean aurkeztu zen plan osoaren ebaluazio-

edificios que puedan beneficiarse de las ayudas destinadas a la protección y conservación del Patrimonio Histórico.

Continúa el Sr. Rodríguez recalando que, si bien el plan de subvenciones no recoge obligaciones sino límites, contiene un gesto político muy evidente. En este sentido la eliminación de las ayudas a personas familiares de personas presas que estén a más de 250 kilómetros de Getxo parece un gesto político que indica que aquí hay algún tipo de acuerdo, lo que es motivo suficiente para votar la propuesta en sentido negativo. El Sr. Rodríguez añade que, no obstante, se reservan el derecho a presentar las enmiendas que consideren oportunas al Pleno. Respecto a las enmiendas presentadas señala que la primera les parece factible y con la segunda no están de acuerdo con el hecho de que sea una subvención nominativa, pudiendo ser en concurrencia. Con la tercera muestra su total desacuerdo y con la cuarta podrían estar de acuerdo. No obstante, teniendo en cuenta el argumento anterior de que se trata de una escenificación, manifiesta que su grupo se va a abstener.

Por su parte la Sra. Amieva anuncia que presentarán enmiendas para el Pleno y lamenta no haber recibido antes las enmiendas del PP. Añade que no sabe si habrá algún acuerdo por detrás con el PP y expone sus dudas acerca de la pretendida transparencia que se deduce del control económico financiero y de seguimiento anual del Plan, ya que se trata de algo que se ha reclamado todos los años de forma infructuosa. Lo más cercano fue el informe de evaluación de la totalidad del

txostena izan zen. Beraz, Amieva andreak nabarmendu du urteko errendimendu hori derrigorrezkoa izan beharko litzatekeela. Zuzenketei dagokienez, adierazi du zalantzak daudela; idazketa eskasa da, seguruena denbora gutxi izan delako hura idazteko. Beraz, PPrekin harremanetan jarriko direla adierazi du, horiek konpondu ahal izateko. Ados dago ondare historikoaren babesa bultzatzearekin, baina kezkatuta ere badago, ildoak proposatu arren aurrekontuetan ezer hornitzen ez bazaie egongo ez balira bezala delako. Amaitzeko azaldu du bere taldea abstenitu egingo dela, aipatu zalantzen ondorioz.

Uriarte jaunak zehaztu du eskuragarri dagoen informazio guztia oposizio guztiarekin partekatu dela, bai egindako bileretan, bai posta elektronikoz, bai foroetan. Halaber, gogorazi du aurrekontu-zuzkidura beste bide batetik doala, hori baita legezko izapidea, eta azpimarratu du kasu honetan ez dakiela taldeek zer bozkatuko duten. Aurkeztutako zuzenketei dagokienez (lehenengoa kirol egokituari buruzkoa), kirol egokitua ildo orokorretik bereizi daiteke, baina dagoeneko ildo orokorrak estaltzen du, eta uste du bereizketa horrek ez duela onurarik ekarriko; gainera, hartzaile posibleak ez dira ari hori eskatzen.

Horri dagokionez, González jaunak azaldu du kirol askotan talde egokituak daudela, eta, beraz, jarduera garatzeagatik ematen ari den zenbateko bat banatzea baino ez litzatekeela lortuko. Onartzen du ikusgarriagoa izango

plan que se presentó en febrero. Por tanto, la Sra. Amieva resalta que debería ser obligatorio ese rendimiento anual. En cuanto a las enmiendas, señala que se plantean dudas ya que la redacción es escasa probablemente debido el poco tiempo disponible, por lo que anuncia que mantendrán contactos con el PP para resolverlas. Manifiesta su conformidad con el impulso de la protección del patrimonio histórico y expone su preocupación por el hecho de que, por mucho que se propongan líneas, si no se dotan en los presupuestos es como si no hubiera nada. Concluye su exposición indicando que su grupo se va a abstener debido a las citadas dudas.

El Sr. Uriarte precisa que toda la información de que se dispone se ha compartido con toda la oposición, bien en las reuniones mantenidas, bien por correo electrónico, o bien en los diferentes foros. También recuerda que la dotación presupuestaria va por otro camino ya que es el trámite legal y resalta que en este caso ignora cuál va a ser el sentido del voto de los diferentes grupos. Respecto a las enmiendas presentadas (la primera de ellas se refiere al deporte adaptado), aunque es factible separar el deporte adaptado de la línea general, ya se encuentra cubierto por ésta y considera que esa separación no produce beneficios, además de que no es lo que los posibles destinatarios están solicitando.

A este respecto, el Sr. González explica que en muchos deportes ya hay equipos adaptados por lo que lo único que se conseguiría sería disgregar un importe que ya se está concediendo por desarrollar la actividad. Reconoce que sería más

litzatekeela, baina kirol egokitan eta integraziokoan ere bereizketarik ezaren eztabaida planteatzen da.

Elikagaien Bankurako proposamen izendunari dagokionez, Uriarte jaunak ados dagoela adierazi du, kontuan hartuta datorren urtean laguntza eman beharko zaiela behar horiek dituzten pertsonen. Beraz, lehia bidezko dirulaguntzak motz geratuko dira, baina ezin du aurreratu azkenean izango duen aurrekontu-zuzkidura.

Hirugarren zuzenketari dagokionez (etxebizitzaren ildo estrategikoan “bizitegiak” aipamena kentzea), kontrako iritzia eman du, EH Bilduren bat datorrela adierazi du; hau da, bere ustez dirulaguntzek bizitegi-eraikinetarako izan behar dute, eta behar jakin bat antzemanaz gero, dirulaguntza izendun batera jo ahal izango litzateke. Azkenik, laugarren zuzenketari dagokionez, uste du babes-maila handiagoa duten higiezinak beste laguntza batzuk jaso ditzaketela, zerga-hobariak izateaz gain; beraz, ez da egokitzat jotzen horiei baliabideak ematea.

Rodríguez jaunak hartu du hitza orduan, eta adierazi du denek dakitela Planean presoen senideentzako laguntzalerro bat sartuta, EH Bilduren babesa lortuko litzatekeela, baina, beste alde batetik, laguntza hori kentzea PPK urteetan eskatu duen baldintza izan da berea eskaintzeko. Denek dakite hori, baina itxuraz Uriarte jaunak ez. Amaitzeko, adierazi du Gobernu taldeak bidelagun bat aukeratu duela. Hori oso zilegi da, baina ez du ulertzen zergatik ezkututzen den.

visible, pero en el deporte adaptado y de integración también se plantea el debate de la no diferenciación.

En cuanto a la propuesta nominativa para el Banco de Alimentos el Sr. Uriarte manifiesta su conformidad teniendo en cuenta que el año que viene va a ser necesario ayudar a las personas con estas necesidades, por lo que las subvenciones en concurrencia existentes se van a quedar cortas, si bien no puede anticipar la dotación presupuestaria que finalmente tendrá. Sobre la tercera enmienda (eliminación de la referencia a “residenciales” en la línea estratégica de vivienda) manifiesta la opinión contraria y su coincidencia con la opinión de Eh Bildu, es decir que las subvenciones deben de ser para los edificios residenciales y si se detectara una necesidad concreta se podría acudir a una nominativa. Por último, respecto a la cuarta enmienda, considera que los inmuebles con grado de protección superior pueden optar a otras ayudas, además de que disfrutan de bonificaciones fiscales, por lo que no se considera oportuno destinar recursos a los mismos.

Interviene entonces el Sr. Rodríguez para señalar que a nadie se le escapa que incluyendo en el Plan una línea de ayudas para los familiares de personas presas se conseguiría el apoyo de Eh Bildu y que, por el contrario, la eliminación de la misma ha sido durante años una condición exigida por el PP para ofrecer el suyo. Añade que es conocido por todos, pero que el Sr. Uriarte parece que no lo sabe. Concluye que el equipo de gobierno ha elegido un compañero de viaje, lo cual es muy lícito, pero no entiende porque se

Nahiago du pentsatu laguntza zentzu jakin batean bilatzen ari dela.

Ondoren, zuzenketak banaka bozkatzea proposatu da. Puntu horretara iritsita, Amieva andreak galdetu du zergatik dagoen erregistro-zenbaki bat aurrekontuari egindako zuzenketa bakoitzerako, eta, kasu horretan, zergatik bozkatu ahal izango diren banaka idazki bakarrean jasota daudenak. Ez litzateke beti jarraitu behar irizpide bera? Horri dagokionez, beste batzuetan, gobernu-taldeak adierazi du proposamen berean doana blokean bozkatu behar dela.

Uriarte jaunak erantzun du kasu honetan zuzenketen zenbakiak erakusten dutela zalantzarik gabe zuzenketa bereziak direla. Hau da, bere ustez erregistroak ez du baldintzatzen nola bozkatu behar den. Beste gauza bat da erregistroa erreferentzia eroso dela bozketen jarraipena egiteko.

Amieva andreak adierazi du ados dagoela bozketa bereiz egitearekin, baina uste du prozedura argitu behar dela nahasteak saihesteko, eta gogorarazi du gobernu-taldearen proposamen batzuek esaten dutela ezin direla zatikatu bozketa egiteko.

Uriarte jaunak erantzun du bi eremu desberdin direla, proposamenaren atzean espediente bat baitago, administrazio-prozedura osoarekin; hau da, proposamen bakarra da.

Puntu horretan Zorrilla Lequerica jaunak hitz egin du, eta adierazi du

esconde. Prefiere pensar que se está buscando un apoyo en un sentido determinado.

Se plantea entonces la votación individual de las enmiendas. Llegados a este punto la Sra. Amieva pregunta el motivo por el que en el caso de las enmiendas al Presupuesto haya un nº de registro para cada enmienda y en este caso se puedan votar por separado las que vienen recogidas en un único escrito. ¿No se debería seguir el mismo criterio siempre? A este respecto en otras ocasiones el equipo de gobierno ha indicado que lo que va en la misma propuesta debe votarse en bloque.

El Sr. Uriarte responde que en este caso la propia numeración de las enmiendas invita a pensar de forma indubitada que son enmiendas separadas. Es decir, que considera que el registro no condiciona cómo se vota. Otra cosa es que el registro es una referencia cómoda para hacer el seguimiento de las votaciones.

La Sra. Amieva indica que está conforme con la votación por separado pero entiende que debe aclararse el procedimiento para evitar confusiones, recordando que hay propuestas del equipo de gobierno que se dice que no pueden fragmentarse para su votación.

Contesta el Sr. Uriarte que son dos ámbitos diferentes, ya que la propuesta lleva detrás un expediente con todo su procedimiento administrativo, es decir, es una propuesta única.

En este punto interviene el Sr. Zorrilla Lequerica para señalar que el



“zuzenketen” enuntziatuak berak argi uzten duela hori eta ulertzen dela bata bestearengandik independenteak direla. Beraz, banaka bozka daitezen nahi du.

PPren lehenengo zuzenketa bozkatu ondoren, ez da onartu; honako hauek izan dira botoak: **PPk aldeko 2 boto, EAJk eta PSE-EEK aurkako 6 boto, eta EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek 3 abstentzio.**

Bigarren zuzenketa bozkatu ondoren, onartu egin da; honako hauek izan dira botoak: **EAJk, PPk eta PSE-EEK aldeko 8 boto, EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek 3 abstentzio.**

PPren hirugarren zuzenketa bozkatu ondoren, ez da onartu; honako hauek izan dira botoak: **PPk aldeko 2 boto, EAJk eta PSE-EEK aurkako 6 boto, eta EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek 3 abstentzio.**

PPren laugarren zuzenketa bozkatu ondoren, ez da onartu; honako hauek izan dira botoak: **PPk aldeko 2 boto, EAJk eta PSE-EEK aurkako 6 boto, eta EH Bilduk eta Elkarrekin Podemosek 3 abstentzio.**

Zuzenketa guztiak bozkatu ostean, Batzordeak irizpena eman du, onartu den zuzenketa bidez aldatu den proposamenaren gainean. Bozketa egin ondoren, emaitza hau izan da: **Aldeko 6 boto, EAJ eta PSE-EE; aurkako 3 boto, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos; eta bi abstentzio, PP.**

propio enunciado de “Enmiendas” lo deja claro y se sobreentiende que son independientes unas de otras. Por tanto, su pretensión es que se voten por separado.

Sometida la Enmienda Primera del PP a votación es rechazada al obtener **2 votos a favor, PP; 6 votos en contra, PNV y PSE-EE; 3 abstenciones, EH Bildu, Elkarrekin Podemos.**

Sometida la Enmienda Segunda a votación es aprobada al obtener **8 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE; 3 abstenciones, EH Bildu, Elkarrekin Podemos.**

Sometida la Enmienda Tercera del PP a votación es rechazada al obtener **2 votos a favor, PP; 6 votos en contra, PNV y PSE-EE; 3 abstenciones, EH Bildu, Elkarrekin Podemos.**

Sometida la Enmienda Cuarta del PP a votación es rechazada al obtener **2 votos a favor, PP; 6 votos en contra, PNV y PSE-EE; 3 abstenciones, EH Bildu, Elkarrekin Podemos.**

Una vez votadas todas las enmiendas, la comisión emite su dictamen sobre la propuesta presentada modificada por la enmienda admitida. Habiendo sido sometida a votación, arroja el siguiente resultado: **6 votos a favor, PNV, PSE-EE, 3 votos en contra de EH Bildu y Elkarrekin Podemos; y 2 abstenciones de PP.**

Ondorioz, eta Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeak proposatuta, Osoko Bilkurari egin zaio hurrengo:

### **ERABAKI PROPOSAMENA**

1.- Proposamen honekin batera aurkeztu den Getxoko Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2020-2023 denboraldiko diru-laguntzen plan estrategikoa izeneko dokumentua onestea, beraren edukiarekin batera, eta eranskinak:

- A1 eranskina.- 2020. urtea (irailaren 16a). Hemen, aribideko ekitaldiko aurrekontu-gordailuaren xehetasuna erakusten da, informazioa emateko asmoarekin.
- A.3 eranskina. Ildo estrategikoko fitxak planeko 17 ildo estrategikoetako bakoitzerako bat.

2.- Erabaki hau eta Getxoko udalaren eta bere Erakunde Autonomoen diru-laguntzen plan estrategikoa, 2020-2023 denboraldirako, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Diru-laguntzen datu-base nazionalan eta udalaren webgunean argitaratzeko agintzea.

3.- Erabaki hau udal arlo guztiei eta erakunde autonomoei jakinaraztea.

En consecuencia y a propuesta de la Comisión Informativa de Organización y Cuentas, se eleva al Pleno la siguiente:

### **PROPUESTA DE ACUERDO**

1º.- Aprobar el documento denominado Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autonomos para el periodo 2020-2023, que se acompaña a la presente propuesta, y anexos:

- Anexo A1.- Año 2020 (16 septiembre) en el que se muestra a título informativo detalle de consignación presupuestaria del ejercicio en curso.
- Anexo A.3. Fichas de línea estratégica, una por cada una de las 17 líneas estratégicas del Plan.

2º.- Ordenar la publicación del presente Acuerdo así como del Plan estratégico de subvenciones del Ayuntamiento de Getxo y sus Organismos Autónomos para el periodo 2020-2023, en el Boletín Oficial de Bizkaia, la Base de datos nacional de subvenciones y en la página web municipal.

3º.- Comunicar el presente acuerdo a todas las áreas municipales, así como a los Organismos Autónomos.

**8. 2578/2020 ZENBAKIDUN DEKRETUAREN BERRI EMATEA; DEKRETU HORI AURREKONTUA**

**8. DACIÓN DE CUENTA DEL DECRETO N° 2578/2020, RECTIFICADO POR DECRETO N°**

**KREDITU-GAIKUNTZAREN BIDEZ ALDATZEARI BURUZKO 2752/2020 DEKRETUAREN BIDEZ ZUZENDU DA.** **2752/2020, DE MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA MEDIANTE HABILITACIÓN DE CRÉDITO.**

Antolakuntza eta Kontuetako Informazio Batzordeari jakinarazi zaio Osoko Bilkuran honako dekretuaren berri emango dela:

2578/2020 zenbakidun Dekretua, 2752/2020 zenbakidun Dekretuaren bidez zuzendua, 25.755,00 euroko zenbatekoarekin. 2020/05F kreditua gaitzea. 2020ko uztailaren 12an Eusko Jaurlaritzako hauteskundeetan parte hartzeagatik mahaikideei dietak ordaintzea.

Batzordeburuak bileraren hasieran azaldu bezala, CRISTINA ZAMORA CHUQUIGUANGA (EH BILDU) ANDREAK ZINEGOTZI KARGUARI UKO EGIN DIOLA JAKITEKO PROPOSAMENA izeneko espedientea gai-zerrendan sartuko den bozkatu da. Proposamena gai-zerrendan sartzea **ahobatez onartu da.**

Jarraian, Antolaketa eta Kontuen Informazio Batzordeari jakinarazi zaio hurrengo espedientearen berri emango dela Osoko Bilkuran:

1.- Cristina Zamora Chuquiguanga andreak udal honetako zinegotzi kargu uko egitearen berri jasotzea.

Se informa a la Comisión Informativa de Organización y Cuentas de que se va a dar cuenta del siguiente decreto en el Pleno:

Decreto nº 2578/2020, corregido por el Decreto nº 2752/2020, por un importe de 25.755,00 euros. Habilitación de crédito 2020/05F. Pago de dietas a miembros de mesa por su participación en las elecciones a Gobierno Vasco el 12 de julio de 2020.

Tal y como ha indicado el Presidente al inicio de la sesión, se procede a votar la incorporación al orden del día del expediente denominado PROPUESTA DE TOMA DE CONOCIMIENTO DE LA RENUNCIA AL CARGO DE LA CONCEJALA DE DOÑA DOÑA CRISTINA ZAMORA CHUQUIGUANGA (EH BILDU). Dicha incorporación **es aprobada por unanimidad.**

A continuación se informa a la Comisión Informativa de Organización y Cuentas de que se va a dar cuenta del siguiente expediente en el Pleno:

1.- Tomar conocimiento de la renuncia presentada por doña Cristina Zamora

Chuquiguanga al cargo de Concejala de este Ayuntamiento.

2.- Erabaki honen ziurtagiria Hauteskunde Batzorde Zentralari igortzea hautetsi izaeraren egiaztatze gutuna egin dezan dagozkion hautagaiaren alde.

2.- Remitir certificación del presente acuerdo a la Junta Electoral Central para que proceda a expedir la credencial acreditativa de la condición de elect@ a favor del candidat@ al que corresponda cubrir la vacante producida.

## **9. INFORMAZIO OROKORRA**

Uriarte jaunak gogorarazi du Batzordearen aurreko bileran PPK izapidetzen ari zen diziplina-espedita baten egoeraz galdetu zuela. Horri dagokionez, batzordeburuak jakinarazi du dagoeneko sinatu dela largespena eta artxibatzea erabakitzen duen ebazpena, eta zinegotzi gisa Langilea Arloan eskura dezaketela espedita, alde aurretik eskatuta.

Rodríguez jaunak egindako gastuaren erantzukizunari buruz galdetu du, espedita Muxikebarrin zinemarako azpiegiturak erosteari buruzkoa baita. Zein izan da horren kostua?

Uriarte jaunak erantzun du ebazpenak alderdi guztiak hartu dituela kontuan, eta azkenean emaitza horixe izan dela: largespena eta artxibatzea.

## **10. GALDE-ESKEAK**

## **9. INFORMACIÓN GENERAL**

El Sr. Uriarte recuerda que en la anterior comisión el PP preguntó por la situación de un expediente disciplinario que se estaba tramitando. A este respecto el Presidente de la Comisión informa de que ya se ha firmado la resolución, que acuerda el sobreseimiento y archivo, y que como concejales pueden acceder al expediente en Personal, previa solicitud.

El Sr. Rodríguez pregunta por la responsabilidad del gasto en el que se ha incurrido, ya que el expediente se refiere a la compra de infraestructuras para el cine en Muxikebarri. ¿Cuál ha sido el coste?

Responde el Sr. Uriarte que la resolución tiene en cuenta todos los aspectos y ha llegado a la conclusión a la que ha llegado, es decir, el sobreseimiento y archivo

## **10. RUEGOS Y PREGUNTAS**

- Elkarrekin Podemosen 4237/2020 zenbakidun idatzia. Horren bidez, informazioa eskatu zuten honako gai hauei buruz:
  - Espazio publikoen garbiketa.

Dagoeneko erantzun da Lurralde Batzordean eta Hezkuntzan.

- Langileria Arloko txostena Laguntza Batzordeari eta erretiratuei buruz.

Langileen Arloa horretan ari da, eta bilera bat aurreikusi da tartean dauden organo eta sailekin partekatzeko emaitza. Uriarte jaunak adierazi du bere asmoa dela Laguntzen Batzordeak urtea amaitu aurretik egingo duen bilerarako egotea.

- 2021eko aurrekontuaren zirriborroa.

Uriarte jaunak erantzun du aurrekontua finkatzen ari dela. Hala ere, kontuan izan behar da diru-sarreraren aurreikuspenek gastuen aurreikuspenei eragiten dietela. Horri dagokionez, gaitu ezin den ziurgabetasuna dago: Udalkutxaren aurreikuspena ezin izango da urriaren amaierara arte jakin. Beraz, ez da zirriborrorik emango aurreikuspen horren aurretik. Data horretatik urte amaiera bitartean aurrekontu bat onartuta egoteko ahalegina egingo da. Hori dela eta, izapideak konprimitu beharko dira, eta, ondorioz, hilabete horietan guztien lana, gobernuarena eta oposizioarena, areagotu beharko da.

- Escrito nº 4237/2020 de Elkarrekin Podemos solicitando información acerca de las siguientes cuestiones:
  - Limpieza de espacios públicos.

Ya se ha respondido en la Comisión de Territorio y en Educación.

- Informe de Personal acerca de la Comisión de Ayudas y los jubilados.

El Área de Personal está con ello y ya hay una reunión prevista para compartir el resultado con los órganos y departamentos implicados. El Sr. Uriarte señala que su ambición es que esté para la reunión de la Comisión de Ayudas de antes de fin de año.

- Borrador del Presupuesto 2021.

El Sr. Uriarte contesta que se está trabajando en la conformación del Presupuesto. No obstante hay que tener en cuenta que las previsiones de los ingresos afectan a las de los gastos. A este respecto hay una incertidumbre que es insalvable, que es la previsión de Udalkutxa, que no podrá conocerse hasta finales de octubre, por lo que no se entregará ningún borrador antes de esa previsión. Se intentará que entre esa fecha y fin de año haya un presupuesto aprobado, por lo que se tendrán que comprimir los trámites y, por tanto, intensificar el trabajo de todos, gobierno y oposición, durante esos meses.

Jarraian, Amieva andreak galdetu du ea ordenantza fiskalak aldatuko diren. Uriarte jaunak erantzun du ez dagoela zerga-tasak ukitzeko aurreikuspenik.

Pregunta a continuación la Sra. Amieva por si se van a modificar las ordenanzas fiscales, contestando el Sr. Uriarte que no hay previsión de tocar los tipos impositivos.

Bestelako gairik ez dagoenez, bilera amaitutzat eman da 13:36an, eta, batzordeburuarekin batera, idazkariak sinatu du.

Sin más asuntos que tratar se levanta la sesión siendo las 13:36 horas, firmando el Presidente, junto con la Secretaria que da fe.

ANTOLAKUNTZA ETA  
KONTUETAKO INFORMAZIO  
**BATZORDEKO BURUA/**  
**EL PRESIDENTE DE LA COMISIÓN**  
INFORMATIVA DE ORGANIZACIÓN  
Y CUENTAS

ANTOLAKUNTZA ETA  
KONTUETAKO INFORMAZIO  
BATZORDEKO **IDAZKARIA/**  
**LA SECRETARIA DE LA COMISIÓN**  
INFORMATIVA DE ORGANIZACIÓN  
Y CUENTAS

Ignacio Uriarte Gorostiaga

Cristina Orbezu González